Lehenengo egunean egin genuen zatia abentura txiki bat izan zen, ez baita erraza Tiranatik Valbonara iristea. Distantzia handia ez den arren, hiriburutik urrundu ahala errepideen egoerak okerrera egiten du eta, bata dela eta bestea dela, ia egun osoa behar izan genuen: goizeko 3:15ean hartu genuen taxia abiapuntu genuen gasolina-zerbitzugaria heltzeko; autobusa goizeko 4:00etan irten zen handik, eta lau ordu behar izan zituen Koman lakurainoko bidea egiteko; bertan, 9:00etan, itsasontzia hartu genuen, eta bi ordu nabigatu ostean iritsi ginen Fierze herrira; amaitzeko, furgonetaz joan ginen Valbonaraino. Bazkalorlu aldera heldu ginen helmugara.

Koman eta Fierze artean itsasontziz zeharkatu genuen lakuari batzuek Albaniako fiordoak deitzen diote. Amildegia ikusgarriak



Bunkerrak nonahi aurkituko ditugu Albanian

dituen arren, Drin ibaiko eremua fiordoa dela esatea gehiegi izan daiteke; izan ere, ez dugu ahaztu behar paisaia artifiziala dela, gizakiak sortua, eta ez naturala. Energia hidroelektrikoa lortzeko asmoz eraikitako presak sortu zuen fiordoa 1988. urtean.

Valbona (993 m) mendigune batean dagoen herrirako bat da. Gailur altu inguratuta dago, eta eguraldia ere halakoa da: egunez bero eginagatik, gauak benetan hotzak izaten dira. Merezki du inguruetakotako bunker eta ortuak ezagutzeko, baina go-goan izan behar da eguzkia goiz ezkutatzen dela mendien artean.

Inguru haietan egun bat baino gehiago egoteko modua izanez gero, aukera ederrak topatuko daitezke Thethera joan aurretik. Valbonatik abiatuta badira ibilbideak: Rosit (2524 m), Kolata (2550 m) eta Jezercë (2692 m) gailurrak, esaterako. Azken hori da Prokletije mendietako tontorrik garaiena, eta Albaniako bigarren altuena. Guztietan altuena, Korab mendia (2764 m), ez dago iparraldeko mugan, ekialdekoan baizik. Haren tontorrek banatzen ditu Ipar Mazedonia eta Albania, eta bi herrialdeetatik igo daiteke.

Guk bigarren egunean egin genuen Theth arteko mendi-ibilaldia. Bideak ez du aparteko zailtasun teknikorik, eta patxadaz hartuz gero, ez da bereziki sasoi-


ko egon behar 15 kilometroko eta 1000 metroko desnibela egiteko. Valbonako ostatuetan hamaiketako egiteko aukera eskaintzen dute. Gazta gazi-gazia, pepinoa eta tomatea dira hango ohiko jakiak. Horiek guztiak gosarian, bazkarian zein afarian dastatu daitezke.

Bidearen hasieran, asfaltozko errepidean ibili behar da, eta hori amaitzean, Rragami i Shales ibaiaren meandroa jarraitu behar da pare bat kilometro. Ibai-bidetik 40 minutu inguru egin ondoren, Rragam auzunera (1140 m) helduko gara. Baserri estiloko etxe txiki osatuta dago, eta gurean bezala, bakoitzak bere ortua eta harrizko hesia du.

Rragam-en hasten da mendiko xenda, eta hura hasi bezain laster, desnibela. Pixkanaka altuera hartuz Valbona harana atzean ikusiko dugu, gero eta txikiagoa. Benetako desnibela, dena den, azken ostalua baino pixka bat lehenago hasten da. Simoni Kafe (1450 m) atsedenekutik aurrera ibilbidea gogortzen hasten da.

Handik aurrera, mendi karstiko itzelak baino ez ditugu ikusiko. Gunerik altuenean banatzen dira bi haranak. Qafa a Valbona du izena tokiak (1795 m), eta harexek eskaintzen du argazkia ateratzeko panoramika onena, bertigorik ez duenarentzat. Bertan bereizten dira Kukkes (Valbona) eta Shkodër (Theth) konderriak.





Nahi duenak, beherako bidea hartu beharrean, tontor garaiagoak egin ditzake. Qafa a Valbona inguruko mendirik altuena Poplukes (2569 m) da, baina horrek oraindik ere desnibel handiagoa igotzea eskatzen du, eta ez dago edozein mendizalaren esku. Ondo prestaturik egon behar da gora ekiteko.

Jaitsierako bidea berriki markatuta dago seinale zuri-gorritz, eta azkar egiten da beherantz. Eguna luzatu nahi izanez gero, bada bidean borda bat, Krojnat Kafe (1490 m) izenekoak, jatekoaz, edatekoaz eta ikuspegiez gozatzeko. Ez dago motiborik presaka aritzeko, nonahi aurkitu baitaiteke ostatua.

Albaniara joatea nahi izanez gero, orain garai ona izan daiteke, aldaketa handiak bizitzen ari da, eta azkar ari da garatzen

Theth (820 m) sasoi batean Valbona bezalako herria izan zen arren, egun askoz garatuago dago. Munduko txoko horretan mendiko turismoa dute ogibide nagusi, eta bistakoa da asmatu dutela bisitarietarako. Badira bi leku bisitatu beharrekoak: XIX. mende amaierako eliza eta Nikoll Koçeku dorrea. Azken horrexek ematen du lekuko historiaren berri. Albania iparraldean, mende luzez Kanun kodea izan da nagusi: norbaitek beste bizilagun bat hilez gero, biktimaren familiak eskubidea (eta betebeharra) zuen mendekua hartzeko. Mendekuari iskin egiteko aukera bakarra dorrean giltzapetzea zen. Bertan, hiltzailearen familiakoak babestuta egon

ohi ziren, Kanun-ak agintzen baitzuen dorrean zeudenen kontra ez zegoela mendekua hartzerik, baina, horren truke, giltzapetuak ezin ziren kanpora irten.

Bizi osorako kartzelaldi boluntarioa zen, nolabait. Ismail Kadaré idazle albaniarrak ezin hobeto kontatzen du Abril quebrado liburuan (1980). Egun, mendekuek ezkurtuan jarraitzen dute, eta Lulash Keçi direlako isolamendu dorreak iraganeko kontu eta museo etnografiko bilakatu dira.

Thethetik abiatuta beste ibilbide batzuk egin daitezke. Tipikoena haren ondoko Nderlysjaz auzunera joatea da, eta handik Syri i Kalter izeneko tokiraino (Blue Eye

ingelesez). Kolore urdin-berdexka harri-garria duten lakua eta ur-jauzia batzen dira han. Joan-etorria egiteko 6 ordu inguru behar dira (20 kilometroko distantzia, 1000 metroko desnibela), eta furgonetaz hurbiltzeko aukera dago. Beste aukera bat, denboraz justuago ibiliz gero, Gjeçaj ur-jauzira joatea da.

Gu, hirugarren egunean, Thethetik Shkodërrera joan ginen, Albania iparraldeko hiririk handienara. Errepidea konponetzen ari ziren, eta ziurrenik laster egongo da prest. Izan ere, herrialdea aldaketa handiak bizitzen ari da, eta azkar ari da garatzen, esaterako, Thethera doan errepidea eta Tirana hiriburua. Beste adibide bat, Enver Hoxhak eraikiarazitako bunkerren ondoko eraikin berriak dira.

Albaniara joatekoak bazarete, orain garai ona izan daiteke, herrialdea guztiz garatu eta Greziak zein Kroaziak duten garapen-maila izan baino lehen. Ezin ukatu haien norabide berdina hartu duela, urte luzez isolaturik egon ostean. Oraindik ere, dena den, iraganeko izaera mantentzen du, eta kontrastez beteriko lekua da: nonahi daude erdizka eraikitako etxeak, auto modernoen ondoan jendea astoz ibiltzen da eta musulmanak izan arren garagardea edaten dute. Xarma bitxia du Albaniak.

Theth herriko eliza



MENDITXIKI DOLOMITAK TRE CIME DI LAVAREDO

TESTU ETA ARGAZKIAK



Mikel Arrizabalaga
(Donostia-Eibar, 1957)

Egunkaria, Berria eta Gara egunkarietan, Pyrenaica, Euskal Herria eta Nora aldizkarietan eta Euskadi Irratian mendiarekin zerikusia duten makina bat artikulua eta kolaborazio egin ditu. Euskal Herriko mendietan ez ezik, Pirinioak, Alpeak, Atlas eta Himalaiako mendietan ibilia da.

Ibilbide zirkular hau Dolomitetako mendi-ibilaldi ezagunenetako bat da, eta nahitaezko geldialdia paraje hauetara hurbilduz gero. Bat-batean lurretik sortzen diren hiru haitz-puskekin topo egitearen sentsazioa ikusgarria da. Rifugio Locatellira iristean, nekea baino poza gailentzen da eta txoratuta geratzen zara haiei so egitean. Tre Cime di Lavaredo Parke Naturalak maila guztietarako bidezidor eta ibilbide sare zabala du. Gainera, oso ezaguna da bere burdinbide eta eskalada-bideengatik. Rifugio Locatelli da hiru mendi eder hauen inguruan dauden ibilbide gehienen azken helburua, begiratoki nagusia baita.

[Tre Cime di Lavaredoko ikuspegi zabala Rifugio Locatellitik abiatuta](#)





Aukerarik ezagunena eta errazena 101 bidezidorretik Rifugio Auronzotik Rifugio Locatelliraino ibilbide lineal bat egitea da. Hiru orduko ibilaldia da (joan-etorria), oso desnibel gutxikoa eta paisaia ederrak dituena. Zalantzarik gabe, aukera ezin hobe da denbora askorik ez duenarentzat. Ibilbide simple hau oso ondo seinaleztatuta dago eta ez du galerarik. Guk itzuli osoa egin nahi genuen eta horretarako 101 eta 105 bidezidorrak lotu genituen.

Hasierako pista, zabala eta eroso, gure norabide bera hartzen duen jendez gainezka egoten da

Rifugio Auronzoren ondoan hasiko dugu ibilbidea, 2330 metroko altueran. Dagozkion argibideak jarraitu (101 bidea, Rifugio Lavaredo) eta ekialderantz egingo dugu. Hasierako pista, zabala eta eroso, gure norabide bera hartzen duen jendez gainezka egoten da. Dorreen azpitik ibiliko gara, lautadan edo oso jaitsiera txikian, eta ermita txiki baten ondotik igaroko gara (Capella degli Alpini). Pista nagusiari jarraituko diogu dorreak pixkanaka inguratzen ditugun bitartean, ia ahaleginik egin gabe, Rifugio Lavaredora iritsi arte (2348 m).

Aterpetik bi bidezidor argi abiatzen dira aurrean dugun mendi-lepo nabarmenerantz. Biak dira aukera onak lepo hori irabazteko, baina agian hobe da eskuinekoa hartzea, erosoagoa baita eta dorreetatik urrun dagoenez, ikuspegi hobeak eskaintzen ditu. Berehala 104 bidezidorrerako



Rifugio Locatellira iristen

desbideratzearekin egingo dugu topo, guk, ordea, 101 bidezidorretik jarraituko dugu, eta Forcella Lavaredon (2454 m) utziko gaitu minutu gutxi batzuetan.

Rifugio Locatelli aterpera ailegatzean, makina bat turista begiratoki honetako terrazatik dauden ikuspegi paregabeek gozatzen ikusiko ditugu

Bidezidor erosotik jarraituko dugu, orain igoera zati txikiak eta jaitsiera nabarmenagoak tartekatzen dituena, Rifugio Locatelliko desbideratzera iritsi arte. Nahiz eta ibilbide zirkularra ez den aterpe horretatik igarotzen, merezi du bertaraino joatea (2404 m). Bertara ailegatzean, makina bat turista begiratoki honetako terrazatik dauden ikuspegi paregabeek gozatzen ikusiko ditugu. Aurrez aurre, Piccola (2857 m), Grande (2999 m) eta Ovest (2973 m) dorre ederrak.

Col Forcellinara iristean (2232 m), Tre Cime di Lavaredok aurpegi berri bat erakutsiko digu, aurrekoak bezain ikusgarria"

Baina Tre Cime di Lavaredoko itzulia ez da aterpe honetan amaitzen, ezta bista polit hauekin ere. Rifugio Auronzora itzultzea tokatzen da, ibilbidearen hasierara hain zuzen ere. Aterpetik abiatu eta lehenengo bidegurutzean desbideratuko gara 105 bidezidorra hartuz. Lanter, bidezidorrak metro batzuk beherantz egiten du belar-zelai handi batera iritsi arte; jaitsiera nabarmenagoa duen tarte horrek zurezko koska batzuk ditu, jaitsiera errazteko. Belazera iristerakoan, bide osoko igoerarik gogorrenari aurre egingo diogu. Col Forcellinara iristean (2232 m), Tre Cime di Lavaredok aurpegi berri bat erakutsiko digu, aurrekoak bezain ikusgarria. Lepotik oso gertu, Langalm etxola dago (Malga Langalm), ingurune ikusgarri batean taberna-jatetxe gisa funtzionatzen duena.

Mendi laku txiki batzuk ezkerrean utzita, bidezidor nagusitik aurrera jarraituko dugu. Metro batzuk gehiago igo beharko ditugu Col di Mezzora iristeko (2315 m). 105. bidezidorretik jarraituko dugu eta bertatik kilometro bat pasatxo ibili beharko dugu abiapuntura itzultzeko.

AURONZO ATERPETIK :

10,2 km (luzera) 458 m (desnibela)

AITZIBER NARBAIZA



Anboto cara este



Seceda

JUAN CARLOS TROJAOLA



Pequeño lago camino del Col de Chaleby



Bajando del refugio Quintino Sella

NEGUKO BI ESKALADA ERRAZ

LARRUNARRIKO HEGO-MENDEBALDEKO HORMAN

TEXTO Y FOTOS



Xabi Mujika "Smithy"

Batzuetan erizaina, zenbaitetan dietista eta noizean behin eskalatzea eta mendian korrika egitea gustuko duen mendizalea. Ipurterrea, ohiko bideetatik ihesi eta Euskal Herriko mendietara ezohiko bideak aurkitzen saiatzen dena, Aralar eta Aizkorrin batez ere. Hala ere, aukera duen bakoitzean Pirinioetara ihes egiten du bertako mendiei bisita egiteko.



Larrunarri elurretan

Neguak elurra noiz ekarriko duen irrikan egoten gara, nahiz eta klima aldaketaren eraginez fenomeno meteorologiko hau geroz eta ezohikoago bihurtzen ari den. Hau dela eta, zuritzen diren egun bakanetan, etxe ondoko mendiak trineo, eski, erraketa, piolet eta kranpoiez armaturiko mendizale hordez betetzen dira. Gu ez gara salbuespen izaten noski eta Aralar eta Aizkorriko mendi elurtuetatik iristen zaizkigun lamien doinuei ezin izaten diegu ezetzik esan.

Larrunarrin negu giroan eskalatu nahi dutenek hego-mendebaldeko hormara "kondenatuak" daude, ipar-horma ilun eta hotzean eskalatzea urte osoan debekatuta dagoelako. Hala ere, Larrunarriko hego-mendebaldeko horma jolastoki ederra da negu giroan piolet eta kranpoiekin jolasteko, horren adibiderik garbiena Mikel Saez de Urabain ordiziar alpinistaren "non stop eskalada" blogean azaldutako zailtasuneko bideak, Eskoziako Ben Nevis mendia gogorazten dizkigutenak. Zailtasuneko bide hauetatik aparte, sasi-eskalatzaileak garenok badugu gure jolastokia ere, Erlabeltzeko Punta eta Larrunarriko gailurren arteko horman batez ere. Hemengo bideak, oro har, ez dira hain ber-

tikalak baina bai nahikoak alpinista izan nahiaren gosea asetzeko.

Horma honen orientazioa eta Larrunarriko duen altueragatik elurrak ez du asko behar izaten baldintza onetan egoteko, baina arrazoi beragatik baldintza on hauek ez dute denbora luzean irauten. Honegatik, horma honetan eskalatu nahi bada botatuko elurteak ongi aprobetxatu beharko ditugu.

Larrunarriko hego-mendebaldeko horma jolastoki ederra da negu giroan piolet eta kranpoiekin jolasteko

Artikulu honetan bi bideren berri emango dizuet, teknikoki zailak ez direnak baina goiz-pasa entretenigarri bat pasarako digutenak. Bide hauetara modurik erraz eta azkarrena Larrunarrira doan "Tximista" bidea igotzen hasi (elurra dagoenean arrasto ona irekita izaten duena) eta bideak eskuinera (igoeraren noranzkoan) hartzen duen tokian ezkerrera zeharkaldi horizontal bat egitea da.

Artikulu honetako bideak Erlabeltzeko puntan amaitzen dira. Larrunarriko gailurrera iritsi nahi badugu ipar-mendebaldeko gandorretik jarraitu beharko dugu, elurra duenean arreta mantentzea eskatuko diguna. Teknikoki ez da tarte zaila (II/III) baina ohikoa da haizeak pilatutako elur bigunaz estalita egotea. Larrunarriko gailurraren azpian dagoen mendi-lepo estura iritsitakoan, ipar-hormara pasatu eta azken metroak bertatik igoko ditugu, elurra bigunagoa egoten bada ere eskalada seguruagoa delako.

Marcel Proust idazle frantziarrak zera esan zuen behin: "Aurkikuntzaren benetako ekintza ez da lur berriak aurkitzera irtetea, lur zaharra begi berriekin ikusten ikastea baizik". Ziur naiz Euskal Herria ziprztintzen duten beste mendietan ere mota honetako eskalada interesgarriak nork eskalatu zain egongo direla. Mendi zaharrak begi berriekin ikustea besterik ez dugu behar eskalada hauek aurkitzeko.

"ARRASTRAKULOS" KANALA, 200 m, PD+/ M3/ III-

"Arrastrakulos", hego-mendebaldeko horman dagoen monolito erraldoi baten ezkerrean dagoen kanal tentea da, udan harkaitz-eskalada bideetatik jaisteko erabili izan dena. Kanal honetan aurkitzen diren irtenguneak belar eta lurrez estalita daudenez, elurra dutenean pioletekin trakzioa egitea errazten dute. Hau dela eta, kanal hau izan daiteke Larrunarriko neguko eskaladan hasteko aukerarik aproposena.

Kanala 40 gradu inguruko malda igotzen hasten da eta metroak irabazten goazen heinean malda gora doa, 55 gradu ingurura iritsiz. Orduan kanalak duen lehen irtengunearekin topo egingo dugu, 2 metro eta 65 gradu ingurukoa. Irtengune hau eskalatu ondoren berehala dator kanalak duen bigarren irtengunea, aurrekoa baino luzeagoa baina zailtasun eta malda beretsukoa. Bigarren irtengunea eskalatuta, kanalak malda zertxobat galtzen du, amaieran dagoen horma bertikalera hurbilduz. Horma eskalatzeko pasagunerik errazena eskuinean (igoeraren noranzkoan) dagoenez, bertara zuzendu eta 4-5 metro inguruko irtengune tente bat eskalatuko dugu (M3/III-). Irtengune hau eskalatzea ez da derrigorrezkoa, eskuinetik erdi-oinez saihestu daitekeelako.

"Arrastrakulos", hego-mendebaldeko horman dagoen monolito erraldoi baten ezkerrean dagoen kanal tentea da



"Arrastrakulos" kanala

Hirugarren irtengunea eskalatuta, Larrunarriko hego-mendebaldeko hormak harkaitz-plaka eta belarrez tartekatuz osatzen duen anfiteatro txikia izango dugu parez-pare, Erlabeltzeko puntara iristeko aukerak biderkatuz. Egokiena zuzen eskalatzen jarraitzea da, hau da, anfiteatroaren ezkerretik. Tarte honetan eskalada mistoa de nagusitzen dena eta leku batean baino ge-

Arrastrakulosen lehen irtengunea





Erlabeltzeko Punta eta atzean Larrunarri



Arrastrakulos kanalera iristeko zeharkaldian

hiagoan piolet eta kranpoien puntak harkaitz-plakek dituzten zimurdura, arrail eta zulo txikietan sartu beharko ditugu. Eskaladak zailtasun handirik ez dauka (M3, II/III) eta harkaitza trinkoa eta paregabea da. Hau gutxi ez bada, bertikaltasun sentsaziorik ez dago. Hormak inklinazioa galtzarekin batera Erlabeltzeko puntako gurutzea agertuko zaigu ongi etorria emanez.

EZKER BARIANTEA

“Arrastrakulos” kanalak ezkerrean badu bariante bat, zertxobait zailagoa dena. Bariante hau eskalatu nahi badugu, “Arrastrakulos” igotzen hasi eta, lehenengo irtengunera iritsi aurretik ezkerrean doan adarra igotzen hasi beharko dugu. Berehala 60 gradu eta 4-5 metro inguru dituen irtengune bat topatuko dugu, azpian belar eta lurra duenez pioletekin trakzioa egiteko aukera handiak dituena. Lehen irtengune hau eskalatuta berehala topatuko dugu bigarren irtengune bat, 3-4 metro eta 65° inguruko malda duena. Irtengune honetan harkaitz-plaka tente bat topatuko dugu, bertan dau den zimurdurek piolet eta kranpoien puntak jartzeko aukera emango digute. Bigarren irtengunea eskalatuta, malda 50-55 gradu artean mantentzean da, goiko hormarekin topo egin arte. “Arrastrakulos” kanalera pasatu nahi badugu arreta handia eskatuko digun zeharkaldi horizontal eta delikatu bat egin beharko dugu. Hain delikatua ez den beste aukera bat horma ezkerretik saihestea da, ezker aldera doan erlaitz bat jarraituz, neguan 55 gradu inguruko malda izaten duena.

ERLABELTZKO PUNTAREN ESQUIN KANALA, 200 m, PD+/M2+/III-

“Eskuin kanala”, ipar-mendebaldeko hormaren monolito erraldoiaren eskuinean dagoen kanalarri deitzen diogu. Eta “deitzen diogu” diot ez dugulako inon topatu kanal honen berezko izenik. Kanal honek “Y” erraldoi baten itxura dauka, bi irteera ezberdin eskalatzeko aukera emanez. Artikulu honetan bi irteerak azalduko ditudan arren, ohikoena (baita ederrena ere bai) ezker adarretik doana eskalatzea izaten da, elurrak bertan denbora luzeagoan irauten duelako. “Arrastrakulos” kanalarekin alderatuta, kanal honetan misto erara gehiago eskalatuko dugu, bertan aurkituko ditugun irtenguneak harkaitz-plakez osatuta daudelako.

Eskuin kanala igotzen hasten garenean berehala 2 metro inguruko eta M2/II zailtasuneko irtengune bat topatuko dugu. Irtengune hau eskalatuta malda 40-45 gradu inguruan mantentzen da, bigarren irtengune batekin topo egin arte. Bigarren irtengunea berez ez da irtengune bat, eta eskilara baten moduan, irtengune edo koska txiki eta ezberdinez osatuta dago. Lehenengoa baino zertxobait tenteagoa (M2/II+) eta mehartuagoa bada ere, piolet eta kranpoiak segurtasunez sartzeko lekuak ditu. Bigarren irtengunea eskalatuta, malda 50 gradu inguruan mantentzen da kanalaren hiru ga-




Bigarren irtengunera iristen

ren irtengunera arte. Hirugarren irtengunea bigarrenaren estilokoa da, M2/II+ zailtasunaren baitan dagoena, baina motzagoa da, 3-4 metro ingurukoa. Irtengune hau eskalaturata, kanalaren amaierara iritsiko gara, Larrunarriko hego-mendebaldeko hormak harkaitz-plaka eta belarrez tartekatutako anfiteatro txikiaren oinera hain zuzen ere.

Anfiteatroaren eskuinean dagoen ezproi nabarmenaren ezkerrera mantenduz, 50 gradu inguru duen malda igotzen jarraituko dugu. 55 graduko maldara iristen diren bi horma-txo inklinatu igo ondoren, bidearen laugarren irtengunera iritsiko gara. Azken irtengunea, 4 metro ingurukoa, azpitik dirudiena baino bertikalagoa da. Lau metro hauek dira bide osoari zailtasuna ematen diotenak, M2+/III-. Irtengune hau atzean utzita Erlabeltzeko puntara erdi-oinenez iritsiko gara.

ESKUIN ADARRA

Eskuin kanalaren eskuin adarra bigarren irtengunea dagoen puntuan hasten da, pitzadura zabal batez erdibituta dagoen harkaitz handi batean, hain zuzen ere. Eskuin adarraren beizgarritasunik handiena harkaitz-plaken artean pioletekin trakzioa egin ahal izateko aukera handiak eskaintzen dituen lur eta belar tartekak izatea da, honegatik, nahiz eta azpitik ez dirudien, eskuin kanala baino errazagoa da.



Igoera honetan bi irtengune motz topatuko ditugu: lehenengo adarra igotzen hasi eta berehala (M2/II) eta bigarre-na adarraren irteeran, aurrekoa baino zertxobait zailagoa (M2/II+). Adarra eskalaturata, Larrunarriko hego-mendebaldeko hormak osatzen duen anfiteatroaren eskuinean dagoen ezproiaren eskuinera mantenduz jarraituko dugu. Belar eta harkaitz-plakatoak tartekatzen diren arren, horma inklinatu honetan ez dugu belar tartekak bata bestearekin lotzeko arazorik izango, malda 50 gradura igotzen bada ere. Ezkerrean dugun ezproiaren parera iritsitakoan egokiena honen gainetik ezker aldera zeharkatzea da, itzalpean egoten den elur gogorraren bila. Modu honetan, gorago azaldutako eskuin kanalaren irteerarekin bat egingo dugu.





Ainhize Belar Etxauriko Begi Puntuan bidean, bere lehen 9a

AITZIBER NARBAIZA (HYPERAITZ)

IRUDIAK, ISTORIOAK ETA LAGUNAK



Ioritz Gonzalez Lertxundi
(Azkoitia, 1980)

Biologian lizentziatua eta irakaslea. Kirol eskalatazailerik amorratua; 25 urte baino gehiago daramatza eskalatzen. Hainbat artikulatu idatziak zenbait hedabidetan, Pyrenaicain, Berrian, eta Argian esaterako. Egun, Pyrenaicako erredakzioko kidea da.

Lurretik hainbat metrotara zintzilikatuta, kamera eskuetan eta kontzentratuta dagoen eskalatazailerik batekin horma partekatzen. Horrela gustatzen zaio Aitziber Narbaizari bere burua ikustea; horrela gustatzen zaio aurki dezaten. Aitziber Eibarren sortua da, 1990ean. Sare sozialetan Hyperaitz izenez ezaguna, argazkilaritzan zenbait arlo jorratu izan ditu, eta azken urteetan eskalada eta mendiaren inguruko argazkilaritzan dabil buru-belarri. Dioenez, bere zaletasunak kirol horien berezitasunak eta istorio politak kontatzeko aukera eskaini dizkio.

Nola/noiztik sortu zitzaizun argazkiak egiteko zaletasuna?

Txikitatik marrazkiak eta eskulanak egiteko zaletasuna izan dut. Batxilergoan ikasten ari nintzela, kamera analogiko bat aurrenekoz esku artean izan nuenean argazkilaritzaz maitemindu nintzen. Prozesu analogikoa zenez, eskuz lana egiten nuen, eta niretzat irudiak marraztea bezala zen. Urte gutxiren buruan, kamera digital bat erosi nuen, eta orduan eta ordutik esan daiteke benetako zaletasun bilakatzen hasi zela.

Zer esango zenuke eskaintzen dizula zure zaletasunak?

Egunerokotasunetik deskonektatzeko aukera, argazki on bat lortzeko aitzakiaz. Ez zait asko gustatzen irudiak sortzea, nahiago dut une eder bat "ehizatzea", eta horretarako oso adi egon behar naiz. Sarritan gertatu zait hain kontzentratuta egotea, ezen paretan zintzilikatuta argazkiak ateratzen hiru ordu pasa izan ditudala konturatzerako. Bestalde, jendea eta toki berriak ezagutzeko aukera izatea ere asko gustatzen zait.

Kamera analogiko bat aurrenekoz esku artean izan nuenean argazkilaritzaz maitemindu nintzen

Beti eramaten duzu kamera gainean?

Zorionez, nire ohiko lanean kamera asko erabiltzen dut. Rokodromo bateko komunikazio eta irudi arduraduna naiz, eta kamera beti eskuan izaten dut. Lanetik kanpo ez dut beti nire kamera eramaten, pisua dela eta. Egia esan, askotan faltan botatzen dut eta mugikorreko kamerarekin saiatu izan naiz argazkiak ateratzen, baina emaitza inoiz ez da nire gustukoa izan.

Zuretzat egun, argazkilaritza zer da, aisialdiko jarduerara bat, ala zure lanbidera bideraturiko jarduerara bat?

Lehen esan bezala, nire ohiko lanean argazkiak ateratzen ditut, baina beti teilatupean. Niri benetan gustatzen zaidana aire zabalean egotea da. Urte asko pasa ditut argazkilaritza aisialdiko jarduerara moduan eginez, baina, azken aldian zenbait markak agertu dute nire lanarekiko interesa, batik bat eskalada inguruko argazkiekiko, eta, ondorioz, lan hori pixkanaka-pixkanaka profesionalizatzen hasi naiz. Argazkilaritza bizitza ez da batere erraza, are gutxiago arlo zehatz batean aritzen zarenean, baina, uste dut argazkilariak izan behar garela gure lanari balioa eman behar diogunak bizimodu bat izan dadin.

Sarean jarraitzaile asko dituzu. Nolako harrera izan ohi dute argazkiek?

Egia esan, ez diot zenbakiei garrantzi handirik ematen, nahiz eta jakin haiei esker lan gehiago aurki dezakedala. Nire sare sozialei ez diet hainbeste denbora eskaintzen, eta argazki asko dira karpeta batean gorde izan ditudanak sareetara igotzeko. Hala ere, igoko ditut, hitza ematen dut! Sare sozialean denok elkar ezagutzen dugu, eta, gertatu izan zait eskalada gune batetara heldu eta norbaitek komentarioren bat egin izana nire argazkiak onak direla esanez. Lotsa ematen dit, baina, azken finean, izugarri pozten nau jendeak nire lana jarraitzen duela eta gainera gustuko duela jakiteak.

Eskalatzaileei goitik begiratzeko hasi nintzenean konturatu nintzen zelako argazkiak ateratzeko aukerak izan nitzakeen

Kirol arloko argazkiak soilik egin ohi dituzu?

Ez, denetarik egin dut urteetan zehar. Orain dela urte asko konturatu nintzen jendeari argazkiak ateratzeko lotsa ematen zidala. Argazkiak egiten hasi nintzenean, arlo hori lantzeko aukera izan nuen; kameraren aurrean zegoen pertsonarekin konexio berezi bat sortzeko aukera izan ohi nuela konturatu nintzen. Esterako, eskalatzaileen argazkiek nire

Andoni Esparta Mugarrako Moises bidean



jarduera beste era batera lantzeko aukera ematen didate. Gaur egun, jendearekin lan egitea izugarri gustatzen zait, baina, horretaz gain, eskaladak duen erronka kutsua eta jarduerak egin ohi diren inguruneek argazki bikainak egiteko aukera ezin hobeak eskaintzen dizkirate.

Zergatik eskaladako argazkiak? Zeuk eskalatzen duzu?

Orain dela 3-4 urte hasi nintzen eskalatzen, batez ere roko-dromoan; baina, arrokan eskalatzen hasi nintzenean mundu berri bat aurkitu nuen. Hasieran boulderreko argazkiak egiten hasi nintzen, baina, sokarekin eskalatzen hasi nintzenean, eskalataileei eta hornei goitik begiratzen hasi nintzenean konturatu nintzen zelako argazkiak ateratzeko aukerak izan nitzakeen. Ez zen denbora asko pasa kamerarekin igo eta sokatik zintzilikatuturik argazkiak ateratzen hasi nintzen arte.

Jonathan Flor Rodellar-eko Surgencia sektorean



Zure ustez, eskalatailea izatea garrantzitsua izan daiteke argazki onak egin ahal izateko?

Nire ustez asko laguntzen du, eskalatailearen mugimenduei aurreratu baitzaitezke bidea irakurtzen baldin badakizu, eta horrek asko errazten du lana. Beste gauza bitxi bat ere gertatzen zait, eta uste dut eskalataile izatearekin zerikusia duela: norbait bere proiektua eskalatzen ari bada eta zintzilikatuturik bango argazkiak ateratzen, sentitzen dut nolabait horman soberan nagoela, eta eskalatailearen buruan sartu naizela. Badakit zer sentitzen den arrokan guztiz kontzentratuturik eskalatzean, eta, ondorioz, eskalatailearen arreta ahalik eta gutxien oztopatzen saiatzen naiz, haren jarduna ez eragozteko.

Kirolari zehatz batekin edo batzuekin lan egin ohi duzu?

Esango nuke zorte handia izan dudala nire ibilbidean zehar, zenbait eskalataile zoragarriekin topo egin baitut. Beti egon dira prest laguntzeko, eskalatzeko eta soka jartzeko, eta horri eskerrak nik hainbat argazki atera ahal izan ditut. Ondorioz, nire jardunean hobetzeko aukera izan dut argazkilaria moduan. Eskalataile eta jarduera zehatz bat aipatzekotan, aurten Ainhize Belarrek Etxaurin egin zuen bere lehen 9a mailako bidea esango nuke; oso berezia izan zen. Egun ugari pasa genituen elkarrekin eta elkar hobeto elkar ezagutzeko aukera izan genuen, eta gure proiektuetan jarduteaz gain, konexio polit bat sortu zen gure artean.

Konturatu naiz eskalada arloko argazkilaritzan emakume asko ez daudela, eta horrek nire jardueran jarraitzeko asko motibatzen nau

Egun, teknologia berrien eragina ukaezina da. Testuiguru horretan, zer iritzi duzu mugikorrek egiten diren argazkiei buruz?

Argi dut gauza bat: bai kamerak, eta bai mugikorrek funtzio bat bete dezaketela, baina betetzen duten funtzioa ezberdina dela. Lehen esan dudan moduan, nik neuk ere, kamera ez edukitzeagatik, mugikorraren atera izan ditut argazkiak, eta nahiz eta mugikorreko kamera oso ona izan, lortu izan ditudan emaitzak ez dira hain onak izan. Nik uste tresna osagarria izan daitekeela, baina ez nuke inoiz kamera profesional bat mugikorrarengatik ordezkatuko.

Etorhizunean argazkilaritza arloari denbora/baliabide gehiago eskaintzea gustatuko litzaizuke?

Noski! Denbora asko pasa dut argazkiak egiten eta argi dut hori dela gehien gustatzen zaidana, horretaz gain, pertsona zoragarriak ezagutzeko bide bat eskaini dit, eta beraz, noski gustatuko litzaidakeela baliabide gehiago eskaintzea. Gainera, konturatu naiz eskalada arloko argazkilaritzan emakume asko ez daudela, eta horrek nire jardueran jarraitzeko asko motibatzen nau.



Yosemite egunsentian, California

Miresten duzun argazkilariren bat?

Sare sozialetan mundu osoko hainbat argazkilari jarraitzen ditut, eta oso interesgarria egiten zait eskalada arloko argazkilaritzaren ikuspegi ezberdinak ikustea eta ezagutztea. Izenen bat edo beste aipatzekotan, Javipec esango nuke esaterako, estatu mailan eskaladako argazkilaritzan erreferente bat da, eta guk jorratzen dugun arloan profesional moduan bizi den bakanenetakoa baita. Bernardo Gimenezen argazkiak ere gustatzen zaizkit. Azken honek ez ditu eskalatzaileen jardunaren argazki soilak egiten, bere argazkiek dokumental kutsua izan ohi dute; istorio bat islatu ohi dute. Askotan bidearen pausu gogorrenetako argazkiak ikusten ohituta gaude, baina, batzuetan eskalatu baino lehen edo ondorengo argazkiek istorio bat kontatu dezaket, eta hori irudi bidez kontatzea oso polita da.

Galdetu ez dizudan zerbait aipatzerik nahi?

Nire inguruko jendeari lanean beti eskaini izan didan babesa eskertu nahiko nioke. Haiei esker, argazkiak ateratzeko motibazioa mantentzea lortu dut. Jende oso jatorra aurkitu dut arlo honetan, eta, zorionez, gaur egun nire lagunak direla esan dezaket. Horrek harro sentiarazten nau. Argazkilaritza ez da bakarrik irudi politak lortzeko bide bat, aparteko jendea ezagutzeko beste modu bat ere bada.



INFORMAZIO ETA ARGAZKI GEHIAGO

hyperaitz.com

 [@hyperaitz](https://www.instagram.com/hyperaitz)

TEXTO Y FOTOS




Joseba Azketa
(Gernika)

Guía de barrancos y miembro de Sasitroka Canyoning Taldea. Ha hecho expediciones con apertura de barrancos en Albania y Noruega. Ha descendido barrancos en Alpes, Pirineos, Isla Reunión, Madeira, Azores, Mallorca, Península Ibérica, etc. Asimismo practica la espeleología, MTB, esquí (montaña, alpino y de fondo), kayak y buceo.

BARRANQUISMO EN NORUEGA

Ya estamos aquí otra vez, volvemos a Noruega en busca de nuevos descensos y cascadas que explorar y, aunque ya es la sexta vez que volvemos, no dejan de impresionarnos sus paisajes y los barrancos que nos vamos encontrando. Dejamos el sol que luce en nuestras tierras en verano (estamos en 2022) y nos dirigimos a Noruega a disfrutar de sus aguas, las de sus ríos, no las que caen del cielo, aunque para bien o para mal nos encontraremos con las dos.

El comienzo de la cascada de 170 m del barranco Rausdøla



EL VIAJE

Llegamos a Bergen y está lloviendo, cómo no...

Aunque yo debía haber llegado ayer de Bilbao, junto con dos compañeros que vienen desde Valencia, mi avión tiene que dar la vuelta por razones meteorológicas y aterriza en Hamburgo (Alemania).

Los dos compañeros que venían a recogerme no pueden llegar hasta aquí por un desprendimiento en uno de los túneles principales que unen Bergen con el valle de Flâm, debido a las intensas lluvias que azotan el país. España y el resto de Europa sufren sequía y altas temperaturas, mientras que aquí es todo lo contrario, están teniendo un verano muy lluvioso, mucho más de lo normal. Parece que el cambio climático nos afecta a todos.

Así que después de coger el metro, luego un bus y, por último, un tren destino Flâm, a las 19:00 consigo por fin reunirme con los compañeros que completaremos la avanzada de esta expedición. Más adelante se irán incorporando más miembros.

BARRANCO LUTLAELVI

Sigue lloviendo, aunque para hoy dan un poco de tregua. Decidimos arriesgarnos a realizar la primera apertura de este año, el barranco Lutlaelvi con su impresionante cascada de 120 m. Empezamos a andar, tenemos unas dos horas de aproximación hasta llegar a la cabecera del barranco, superando cuestas empinadas y cargados de material hasta las orejas; pero preferimos eso a quedarnos en la cabaña mirando la lluvia caer.

Llegamos al comienzo del barranco y vemos que el caudal está más alto de lo que creíamos, pero ya que estamos aquí, decidimos entrar igualmente. Sabemos que, más adelante, el barranco se estrecha (lo teníamos mirado en mapas) y vamos rezando para que no se estreche tanto y toda el agua se concentre ahí y no nos deje continuar.

Después de varios rápeles llegamos a la gran cascada (lo mejor del barranco) y vemos que, aunque los chorros de la cascada se dividen en tres partes, cada una de ellas lleva mucho más caudal del que habíamos calculado, pero ya no queda otra que descenderla.

Nos cuesta lo suyo bajar por ella. La cuerda de 80 m no es suficiente, puesto que la cascada es de 120 m, así que tenemos que realizar un péndulo en la mitad de la cascada para poder acceder a una repisa, en donde podemos instalar una reunión y meter anclajes.

Una vez en la repisa, nos cuesta un mundo recuperar la cuerda; tenemos que hacer varias maniobras, lo que nos deja casi sin fuerzas. Aun así, solo quedan unos pequeños resaltes a superar para llegar al coche, así que el trabajo duro ya está hecho.

Muy felices con la apertura y con el trabajo realizado, toca preparar el día siguiente y descansar.



La cascada de 120 m del barranco Lutlaelvi

BARRANCO ÅRØYELVI INFERIOR

Hoy sigue lloviendo, ¡cómo no! La aplicación meteorológica del móvil da una ventana sin lluvia por la tarde, así que preparamos sin prisa el material y nos aventuramos a abrir el barranco Årøyelvi, solo su parte inferior (la superior se abrirá unos días después), ya que la tregua no parece muy larga. Días antes habíamos venido a explorar la zona y encontramos una senda que conducía al barranco, permitiéndonos verlo parcialmente desde arriba.

Realizamos el primer rápel, desde un árbol, que nos deja en el río y pronto vemos que no va a ser coser y cantar. El río nos pone a prueba, nos encontramos un pequeño tobogán, de unos 5 m, que nos voltea debajo del agua debido a su fuerza.

A continuación, viene otro tobogán en forma de curva, pero con una recepción con gran cantidad de piedras, lo que nos obliga a rapelar. Un rápel a una poza que tenemos que



La gran cascada de 170 m del barranco Rausdøla

esquivar, porque es imposible salir de ahí, y llegamos a la espectacular grieta final. Tras otro rápel llegamos al coche. Ha sido un barranco corto pero muy intenso.

BARRANCOS TYISBEKKEN Y MANSSERGELBI

Hemos cambiado de valle y alojamiento y nos hemos reunido con el resto de miembros de la expedición. Sigue lloviendo y la temperatura ha bajado debido a la altitud, ya que estamos al lado de las estaciones de esquí.

Los últimos en llegar vienen con muchas ganas, les da igual la lluvia, nos convencen y vamos a explorar un pequeño barranco en altura, diferente a lo que habíamos hecho hasta ahora.

La entrada al barranco Tyisbekken se encuentra en una explanada, pero hay unas vallas rodeándolo todo. Por lo que nos dicen, son para evitar que los renos salgan a la carretera.

El barranco es de tipo abierto, con varias pozas en las cuales podemos saltar. Según avanzamos, se va encajonando y se pone divertido, mientras nos regala hermosas vistas. Poco

a poco se vuelve a abrir, llegando a su fin. Como ha parado de llover y estamos con ganas, y teniendo en cuenta que en verano en Noruega se hace de noche muy tarde, nos decidimos a adentrarnos en otro barranco que está cerca de aquí.

El de Manssergelbi es un barranco diferente: una grieta que en su inicio está cubierta por un nevero. Nos metemos bajo él con miedo de que la nieve se nos pueda caer encima. Salimos de allí más que satisfechos, pero todavía nos queda la espectacular grieta de la que saldrán cuatro rápeles más. Cuatro rápeles que nos harán activar los cinco sentidos y las fuerzas de reserva.

Llegamos todavía con luz al coche, aunque una densa niebla lo cubre todo. Por fin podremos disfrutar del calor y de una buena cena en nuestra cabaña.

BARRANCO RAUSDØLA

Este barranco será la guinda del pastel y el único que haremos todo el equipo, ya que unos llegaron después y otros se fueron antes. Llevábamos días detrás de él, pero, por motivos meteorológicos, habíamos ido cambiando los planes. Por fin había llegado el día.

Rausdøla es un barranco con un desnivel de 700 m, del que salen varias cascadas de más de 100 m, con una presa que desvía el ochenta por ciento del caudal hacia el interior de la montaña, creemos que para generar electricidad. Nunca habíamos visto algo así. Noruega nos sigue sorprendiendo.

Debajo del nevero del barranco Manssergelbi



Llegamos al punto fuerte del barranco, la gran cascada de 170 m

Empezamos el descenso con un rápel de unos 40 m, caminamos un poco y nos encontramos con la primera de las grandes cascadas. Después de la primera cascada de unos 110 m y de varios rápeles y destrepes, llegamos al punto fuerte del barranco: la gran cascada de 170 m. Nos costará varias horas descenderla. El caudal ha aumentado debido a los aportes de varios afluentes que nos hemos encontrando a lo largo del descenso y eso, sumado a la altura de la cascada, nos pone la adrenalina a tope. Necesitamos siete rápeles para poder descenderla, con el viento y el agua acompañándonos todo el rato.

Reto conseguido. Aunque todavía no hemos acabado el barranco, nos abrazamos y chocamos las manos con unas sonrisas en nuestras caras. No ha resultado nada fácil, ya que hemos tenido muchos problemas en la recuperación de cuerdas. Superados unos cuantos rápeles más, llegamos más que satisfechos al coche.

FINAL DE LA EXPEDICIÓN

La expedición va llegando a su fin, algunos tenemos que volver y decidimos hacer un poco de turismo el último día; otros se quedan y consiguen abrir un par de barrancos más e inspeccionar otras zonas para la siguiente expedición.

Nuestro equipo (Viking Open Canyon) abre barrancos sin ánimo de lucro, para que todo el mundo los pueda disfrutar; es nuestra pasión. Los barrancos abiertos en la primera expedición en 2019 han sido publicados en una guía de barrancos de Noruega (zona Tromsø), disponible en tiendas de montaña. Los barrancos abiertos en el resto de las expediciones habrán salido en una nueva guía a finales de 2023.

Los barrancos abiertos en esta expedición han sido: Årøyelvi superior e inferior, Lutlaelvi, Manssergelbi, Rausdøla, Tyisbekken y Svelget superior.

MIEMBROS DE LA EXPEDICIÓN VIKING OPEN CANYON: Aida Acevedo (Cabres Muntanya), Joseba Azketa (Sasitroka), Mario Gastón (Tracalet), Cristian López (Asalvajaos Team), Antonio Martínez (Asalvajaos Team). Daniel Planels (Cabres Muntanya), Anna Raventós (Asalvajaos Team) y los pequeñajos Aleix y Etna. Nos vemos en la siguiente expedición.

La primera cascada (40 m) del barranco Rausdøla



URLUMA

Era asko daude mendiaz gozatzeko, batzuek korrika egiten dute, beste batzuk bizikletan ibiltzen dira, askok oinez miresten dute ingurua... nik ordea, margotuz jasotzen dut paper batean mendiak eskaintzen didan edertasuna. Baina, mendian margotzea ez da nire kontua bakarrik, aspalditik mendizale askok erabili izan duten teknika da, bai krokisak egiteko, zein argazki batek jaso dezakeen ueña modu pertsonalago batean bizi eta irudikatzeke. Hori baita margoa: bizitzen ari garena sentimenduz beteta irudikatzea eta jasotzea.

Maiz galdetzen didate nola lortzen dudan horrela margotzea, non ikasi dudana, zer behar den horrelako marrazkiak egiteko. Nik egiten dudana, zuk, hark... edonork egin dezakeen arren, zeure sortzaile ibilbidea gaur bertan hasi dezakezun arren, nireak pasa ditu dagoeneko kapitulu batzuk.

Ume-umetatik sartu ziguten gurasoek mendizaletasun harra hiru neba-arreboi. Asteburue-ro ezagutzen genuen Euskal Herriko tontor edo txoko berriren bat, eta irudi haiek gugan utzita aztarna ez da sekula lausotu. Garai hartan ere ez nuen arkatza atzamar artetik urrunegi izango, eta astiro-astiro marrazkiak nire bizitzaren oinarri izaten hasi ziren. Mendizalea

TESTU ETA IRUDIAK



Eñaut Aiertzagüena
Bravo
(Iurreta, 1988)

Iurretako Zaldai Mendi taldeko kidea. Umetatik gozatu izan du mendiaz Euskal Herri osoan nahiz Pirinioetan, oinez, eskalatzan edo pintzelak eskuan hartuta.

© @_urluma_

afizioz eta marrazkilaria ofizioz, beraz, denbora kontua baino ez zen izan biek bat egitea.

Euskal Herriko Unibertsitateko Leioako kanpusean Arte Ederretan lizentziatu ondoren, eta apur batez beste lan batzuetan aritu arren, laster ausartu nintzen! Ez da bereziki erraza marrazkilaria autonomo gisa soldata duin bat lortzea, baina, hor ere, gustuko aldapan nekerik ez! Arkatza erabiltzen edo olio pinturaz margotzen ohituago nengoen garai batean, eta, profesionalizazioak digitalizazioa ekarri zuen nolabait. Hala ere, beti mantendu ditut eskuak paperetik hurbil eta margoz zikinduta. Akuarela teknikak txundituta ninduen, baina ez da ikasteko teknika errazena, eta

Anboto Besaidetik. EÑAUT AIARTZAGÜENA BRAVO





Leunganen margotzen. NAIARA IZA ATUTXA

denboraldi batez nire gogoaren ganbaran geratu zen, urte batzuk beranduago, akuarela kutxatxo bat mendiko motxila batean lehenbizikoz sartu nuen arte.

Mendizaletasunak bilakaera izan du azken urteetan, mendi lasterketak, ibilaldi laburrak, luzeagoak, eskaladaren gorakada... eta niri bide berriak probatzeko gogoa piztu zitzaidan. Bidez gozatzeko denbora hartu eta Urluma sortu zen: mendian akuarelez margotzen aritzeko afizioa

Nepalera egindako bidaia batean izan zen. Annapurna mendiaren inguruko trekking bat egitera gindoazen eta ederra iruditzen zitzaidan mendian margotzen aritzea. Kontuak kontu, nekeak jota ez nuen kutxa hura ibilaldi guztian zabaldu. Urte gutxi batzuen buruan estreinatuta nintzen, mendian margotzen hasi nintzen.

